

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

• OARSO BIDASOKO •
HITZA

22. KORRIKA





Lezoko
Unibertsitateko
Udala



**Lezoarrak
Korrikarekin!
HitzEkin!**



Korrikaren emozioa

Korrika egin eta makil bat bat besteari pasa euskararen aldeko mezuak zabaltzen dituen ibilgailu baten atzetik. Modu hotzean hori da egun hauetan Euskal Herria zeharkatzen ari den egitasmoaren deskribapena. Baina horri AEK-ren iniziatiba ibiltari erraldoiri herritarrek ematen dioten bultzada, jartzen dioten emozioa, eskaintzen dioten bihotz zatia gehitzen bazaio Korrika bihurtzen da. 22.ena aurten goa.

Zirrara, aldarria, izerdia, malkoren bat, hizkuntza baten biziraupenaren aldeko garrasiak, euskara. Bihar pasako da Bidasotik eta Oarsoaldetik Korrika. Jasotako emozioak bidera daitezela era egokian etzitik, egunero euskarak merezi eta behar duen tokia izan dezan. ✕



Imanol Saiz

Korrikaren zirrararak ez du etenik

www.ikastola.eus




Korrikaren ibilbidea eta ordutegia Bidasoa eta Oarsoaldean

HITZAREN HITZETAKIN

Herrietako sarrera ordutegiak

Irun	00:46
Hondarribia.....	01:35
Irun (2. aldiz)	02:25
Oiartzun.....	03:05
Errenteria-Orereta.....	03:52
Lezo	04:07
Pasaia (Donibanetik)	04:32
Errenteria-Orereta (2. aldiz)	05:34



amets sukaldeak

sukalde eta bainugela estudioa



dica. banatzailea
www.dica.es



Zubitxo 15, behea
20100 Lezo
t. 943 341678

ametsukaldeak@gmail.com
www.ametsukaldeak.com

æk
22. korrika

HITZELAN HITZEKIN



URKIA

Korrikarako **PREST!**



**ZURE SEAT ETA VOLSKWAGEN
TALDEKO ZERBITZU OFIZIALA
ERRENTERRIAN**



Ongi etorri Ayerdi Motorrera

Gure bezeroei zerbitzua ematen esperientzia handia dugu, eta Ayerdi Motor erreferentzia da autoen salmentan, banaketan, eta autoen konponketa zerbitzu ofizial bezala Lezon.



- **AUTO BERRI ETA AUKERAKOEN SALMENTA.**
- **MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA.**
- **TXAPA ETA MARGOKETA TAILERRA.**
- **ORDEZKATZE AUTOA.**

INSTALAKUNTZAK

Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO
Tel. : 943344525
ayerdimotor@ayerdimotor.com
www.ayerdimotor.com



Anari Alberdi, Nerea Urbizu eta Ane Garcia grabazio egunetan. **HITZA**

Oinatz luzea izango duten ekarpenak

Bidasotik eta Oarsoaldetik Korrikaren izaera orokorrean eragiten aritu direnak ere egon dira aurten. Esate baterako Kukai Dantzak koreografia sortu du, eta Ane Garciak kantua abestu du.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Euskararen normalizazio linguistikoaren alde borrokan edota euskara hitz egin dadila zabtzen dabilta euskaldunak Euskal Herriko txoko guztietan. Bakoitza bere testuingurutik abiatzen da, baina denen nahia da euskaraz bizi ahal izatea normaltasun osoz; aukera bat izan gabe. Horretan dihardute euskara irakatsiz AEK eskalategiek. Gainera, bi urte tik behin antolatzen duten Korrikak haien lanarekiko herritarren atxikimendua adierazteko balio die, besteak beste. Esanahi handiko inizatiba izanik, horrelako batek behar dituen elementuak ditu, tartean abestia eta horren dantza daudelarik. Zentzu horretan, Bidasoan eta Oarsoaldean badira batzuk Euskal Herri osoan sona izango duten ekarpenak egin dituztenak; Ane Garcia abeslari hondarribiarraren eta Kukai Dantza errenteriarren kasua izan daiteke hori.

Uneoro furgonetan, ikastetxeetan eta *tipi-tapa* aditzen den txoko guztietan entzuten da aurtengo Korrikaren abestia, *Hitzekin*. Ahotsean, Nerea Urbizu eta Anariz gain, Ane Garcia ere entzun daiteke kantari. Era berean, haiekin batera aritu dira Eñaut Gaztañaga ekoizle lanetan, Sustrai Colinak letra idatzi du, eta Urbizuk berak abestia sortu du.

Kantuaren hastapenei buruz galdetuta, Urbizuk jaso zuela kantua sortzearen proposamena azaldu du Garciak, eta hori dela-eta jaso zuen hondarribiarrak kolaborazioaren galdera. «Baiezkoa

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KORRIKA!

iparbus

943 49 18 01 - www.iparbus.com

Bizarain
ikastola

**Bizarainen ere
HITZEKIN!**

San Marcos z/g. 20100 Errenteria-Orereta
Tel.: 943 34 16 45 - HLH / 943 34 43 70 - DBH
www.bizarain.eus
013522aa@hezkuntza.eus


eman nion, baina hala ere sorpresa izan zen niretzat, lehenagotik ez ginelako ezagutzen, eta beste aukera asko zituelako abeslari gisa aritzeko».

Proposamen hori 2020ko udaran jaso zuela azaldu du hondarribarrak –Korrika 2021ean egitekoa zelako– eta urte eta erdiz sekretupean eduki du bere ekarpena. Hori bai, behin abestia argitara eman zutenean ingurukoek sorpresa eta poza hartu zutela adierazi du Garciak. «Lurra taldean ibili nintzen abeslari, baina badira urte batzuk alor publikoan ez nabilela. Ez nabil kontzertuak ematen, eta jendeak sorpresa hartu zuen».

DIMENTSIOA

Grabaketetatik irten zenean, egindakoak izan zezakeenaren dimentsioa neurtzeko ez zela gai izan dio hondarribarrak. Egun hauetan Korrikaren irudiak ikusi eta bere ahotsa hor dagoela ohartzea, berriz, oso sentsazio polita izaten ari dela adierazi du. «Korrika zuzenean ikustean eta abestia entzutean pentsatu izan dut, 'ai ama, hortxe nago jendearekin!'». Oraindik Korrika Bidasotik pasa ez denez, gertatzen ari dena ez duela lehen pertsonan entzun eta bizi adierazi du. «Korrika hasten denean ematen diozu dimentsioa eta ikusten duzu zein presentzia daukan».

Aldiz, Kukai Dantzak bai izan dezakeela egindako lanaren dimentsioaren susmoa. Haiek koreografia diseinatu dute, eta korrikalari guztiei begira pentsatuta sortu zutela azaldu du Alain Maya taldekideak. Korrikak sortzen



Erreterria-Oreretan grabatu zuten koreografiaren bideoa. **HITZA**

duen unitate didaktikoetan oinarrituta egin zion proposamena furgonetan lanean egoten denetariko batek dantzariari, eta hasieran ardura sentitu zutela kontatu du. «Korrika azkenean txoko guztietan egiten da, eta oso ikusgarria da. Zerbait dezentea egin behar genuela uste genuen, funtzionatuko zuena. Kezka hori bagenuen». Aurrekariaren artean *body* perkusioarekin egindako Korrikaren dantza zuten, eta pausuak nolakoak izan behar zuten erabakitzerakoan «ikusi gabe ere momentuan jarraitu ahal den dantza» izan behar zuela argi zuten.

Kukaik urtero kilometro bat erosten duela, edota beste modu batean ekarpena egin ohi izan duela oroitarazi du dantzariak, eta aurtengoarekin ere pozik geratu direla esan du. Gogoan izan du 2009an Gasteiz helmuga izan zenean kale ikuskizun bat aurkeztu zutela dantzariak.

Bai Garciak zein Mayak bat egin dute: Korrika haientzat eta euskaldun guztientzat oso berezia da. ✕



SAGASTI
ELIZONDO

**Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte**

Barne Diseinua

**ETXEBIZITZA NAHIZ LOKALEN
PROIEKTU ETA LANAK**

Santxoenea 31 . Erreterria . 679703944 . 605765316
www.sagastielizondodecoracion.com

zumardi

HITZEKIN!

kioskoa

Egunkariak • Aldizkariak

J.I. Gamon Zumardia. Erreterria - Orereta

sagardotegia

BALEIO

sagardo naturala

Urte osoan zehar
sagardo botilen
salmenta

943 491 340
626 69 30 74

OIARTZUN

Korrikaren hatsa behar du euskarak

OARSO BIDASOKO HITZA

E mozioetatik, sentimenduen arlotik asko du Korrikak. Nortasun eta izaera baten seinale-etakoa da, egiteko eta bizitzeko era batena akaso. Euskaraz bizi direnen, edo bizi nahi dutenen ikurretakoa finean. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearentzat (AEK), gainera, arnas ekonomikorako egitasmoa ere bada Korrika. 2021ean ezin izan zen egin, aurten bai. 22. Korrika martxan da, etzira arte.

AEKren ezaugarrietako bat da Euskal Herrian duela zabalik sarea. Bidasoan eta Oarsoaldean bost euskaltegi ditu orotara: Bidasoko AEK Irunen, Txirrita Pasai Antxon, Xenpelar Erretereria-Oreretan, Intxixu Oiartzunen, eta Oroitzene Lezon. Ehunka dira denen artean dituzten ikasleak. Dozenaka irakasleak. Milaka handik pasatu direnak. Beraz: euskararen normalizazioan eta gizartean pisu eta presentzia oso nabarmena duen eragilearentzat ezinbestekoa da Korrika bere funtzionamendua ustekaberik gabekoa izan dadin. Korrikaren aurtengo leloak euskaraz hitz egitearen ekinaldiarekin du harremana; baina horretarako, beste askoren artean, AEK osasuntsu bat behar da.

Ondoko bi orrialdeetan Idoia Arbelaitz eta Mattin Sorzabalbehete elkarriketatu ditu HITZA-k. Bidasoko eta Oarsoaldeko AEKren ondare humano aktibo dira. Beraz, bi eskualdeetako euskalgintza ulertzeko haien iritzia ezinbestekoa da. ✕

Fauna y Flora
HANDCRAFTED JEWELRY - INSPIRED BY NATURE

HOFF

carhartt

VOLCOM

Loreak Mendian **NÜMPH**

KALIMA

emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak

Biteri 25. Erretereria-Orereta. Tel.: 943510372

Aiton-Etxe
EGUNEKO ZENTROA

Amurriotik Donostira, HitzEkin!

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA

PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

JAKIN S.L.

www.jakinservicios.com

AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO
GESTIOAK

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa . Erretereria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxa: 943 51 60 04

«22. Korrikak arnasa emango dio AEKri, eta ez ekonomikoki soilik»

IDOIA ARBELAITZ
AEK-KO KIDEA

Etenaldiak kolpe latza eman arren, 22. honek «haize freskoa» hartzeko aukera emango diela uste du oreretarrak. Ilusio bikoitzarekin jasoko dute lekukoa igande goizaldean.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Luzea izan da Korrikaren etenaldia. Zer nolako eragina izan du hutsuneak?

Korrikak AEKri sekulako laguntza ematen dio, ez soilik ekonomikoki. Zuzenean ekonomikoki asko ematen dio AEKri, baina gabezia handiena Korrikak euskarari ematen dion hauspo hori izan da, plazara, erdigunera ekartzen baitu. AEK-k Euskal Herri osoan duen kutxa horrek kolpe latza jasan du, eta ahal moduan egin diogu aurre egoerari, barneko erabaki handiak hartzen. Luze egin zaigu etenaldia. Alarma egoera batean indibidualismoa areagotu egiten da, eta filosofikoki esanda Korrikak horren kontra egiten du. Hau da, norbanako bakarti horren kontra egiten du, talde lana ezinbestekoa baita Korrikarekin eta Korrikarentzat. Beraz, ilusio bikoitzarekin jasoko dugu aurten lekukoa, eta arlo ekonomikotik harago, laguntza handia emango digu denei.

Arnasa hartuko du AEK-k 22. honekin?

Hala izango dela pentsatu nahi dugu, haize freskoa izango da. Azterketa bat egin ez gero, hori esango nuke. Nire lehen Korrikatik gaurdaino sekulako bila-kaera izan du egitasmoak, gora egin du



Urko Etxebeste

nabarmenki. Bereziki azken 10-12 urtetan sekulako indarra hartu du. Oztopoak oztopo, aurtengoa arrakastatsua izango dela uste dugu. AEKri arnasa emango dio aurtengoak, aukera paregabea izango da, ez soilik ekonomikoki, baita hizkuntzarentzako ere. Ezagutzak gora egin arren erabilerak behera egin duela? Erabileran eragin behar da, hitzen bitartez eta hitzari ekinez soilik lortuko baitugu hizkuntzaren normalizazioa. Gugandik hasi behar dugu.

Herritarrek ere gogoz daudela antzeman daiteke.

Oso gogotsu daude, edozer antolatze prest daude, eta are gehiago hizkuntzarekin eta gure nortasunarekin lotura zuzena badauka. Korrikaren hasiera telebistan jarraitu nuen atzo [ostiralean izan zen elkarrizketa], hunkituta, sentimendu asko batu ziren. Irrikaz gaude. ✕

www.gestoriasalsamendi.com

SALSAMENDI

GESTORIA - TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA
- AUTONOMOAK - ESKRITURAK

HitzEkin!
- AHOLKULARITZA
FISKAL ETA LABORALA

Maria Lezo, 5 . Erreterria. Tel.: 943 52 43 02

ARKAITZA

HitzEkin! *taberna*

Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA

www.koldomitxelenaikastetxea.com

KOLDO MITXELENA

Herri Ikastetxea

Fernandez de Landa z/g - Erreterria-Orereta
Tel.: 943 89 91 87 - 012905aa@hezuntza.net



HITZA

«2022a urte garrantzitsua izango da euskararentzako»

MATTIN SORZABALBEHERE
AEK-KO KIDEA

AEK-k kultur eta gizarte eragile bezala duen garrantziaz aritu da irundarra. Egoera zaila izan arren, argi du aurtengoak indarra eta lasaitua emango diela: «Bira emango diogu egoerari».

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Etenaldiak argi utzi du Korrika zutoin garrantzitsua dela AEKrentzat.

Ez dugu ahaztu behar AEKren funtsa Euskal Herria euskalduntzen jardutea edo Euskal Herri euskaldun bat lortzea dela, eta horretarako bitartekoak jartzea. Ekonomikoki oso garrantzitsua da, garrantzitsuena. Diru iturri handi bat suposatzen du, eta horri esker euskaltegi

guztiak diruz hornitzen ditugu. Kolpe handia izan da etenaldia, jipoia. Baina bira emango diogu egoerari.

Zergatik bilakatu da funtsezko AEK euskararen normalizazioan?

Funtsezkoa da, batetik euskararen irakaskuntzan Euskal Herri osoan jarduten duen koordinadora bakarra delako. Eta bestetik, Korrika bera antolatzen duela, horrek kulturari eta gizarteari ematen dizkion onura guztiekin. Milaka herritar euskaldundu dira gurekin, kalitatean eta kantitatean asko lagundu du AEK-k. Beharrezko eragile bilakatu da urteen poderioz, eta kulturalki eta gizarte mailan pisu handikoa.

Baita Korrika ere.

Noski, ekintza kultural hauek beharrezkoak dira, zalantzarik gabe. Esaterako, ekarri dezake euskalduntze prozesuan den herritar bat goizean esnatzea eta esatea: 'Euskaraz ari nintzen amesten'. Eta ederra da hori. Gure arteko harremanen fruitua bada hori. Helburu hauek lortzearren egunero aritu behar gara euskaraz, ikasten, irakurtzen, hitz egiten edota Whatsapppe idazten. Euskararen munduan murgiltzea dakar Korrikak, funtsezko lana egiten du.

Prest lekukoa hartzeko?

Noski, gogo handiz gaude, desiratzen, beti bezala. Euskaldun gehienok oso gertutik bizitzen dugu Korrika, eta nik pertsonalki, oso intentsuki bizitzen dut. Urduri ere, eskualdean dena ongi joan dadin dugun arduragatik, baina gustu handiz hartzen duguna da. Eta lasaitua ere bai, Idoari [Arbelaitz] lekukoa pasatzen diogunean, ordurako gure zatia txukun atera denaren seinale delako [barrez]. Gurekin batera korrika egitera animatu nahi ditut bidasoarrak, larunbat gauean Korrikaren zain egon daitezten. Baina ez dugu ahaztu behar igandetik aurrera ere jarraitu behar dugula lanean. Abenduan Euskaraldia dator. Urte garrantzitsua da 2022a euskararentzako, gauza ederrak datoz. ✕

LANDARE
TABERNA



Maria Lezo Kalea, 3. 20100 Orereta - Tel.: 943 51 00 31

Albistur  **Zure etxean adituak**

Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

- **Proiektu eta berrikuntza orokorrak** •
- **Arreta pertsonalizatua** •

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea.
SUKALDEEN ESPOSIZIOA: Biteri kalea 2, behea.
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es




Hitzaren eta ekimenaren urtea



PASAIKO UDALA



A. Aranburu

«Ahal zenero lekukoa eramango genuela erabaki genuen»

JOXE ANTONIO IRIGOIEN

LEHENENGO KORRIKAKO PARTE HARTZAILEA

1980. urtean egin zen lehenengo Korrika Oñatitik Bilbora, eta Bidasotik nahiz Oarsoaldetik ere pasa zen. Bertan izan zen Joxe Antonio Irigoien Hondarribian bizi den oiartzuarra, eta kontatu du.

Elkartu Abotsanitzekin
Kosta kaleko 17an (bus geltokian)
apirilaren 10ean, 01:40tan
(larunbatetik iganderako gauean)

Alde guztietan,
 mintzatu euskaraz!

abotsanitz

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Nola oroitzen duzu 1980. urteko lehen Korrika hura?

Oiartzuarra naiz, nahiz eta ezkondu nintzenetik Hondarribian bizi naizen. Orduan, Oiartzunen antolatu zutenek esan zidaten Korrika Irundik zetorrela, Katea auzotik zehazki, eta ea lekukoa har nezakeen hortik Oiartzuneraino. Beti ibili naiz korrika, eta egoki iruditu zitzairen niri ardura hori ematea.

1980. urte hartara bueltatuz, berandu zetozen eta Oiartzunen itxaron beharrean Katearaino jaitsi ginen. Ezin genuen itxoiz. Gero Oiartzungo plazara iritsi ginen eta hor jende gehiago zegoen. Egia da lehen urtea zela eta erdigunean bakkirik zegoela jende asko, beste lekuetan ez. Etxeak zeuden lekuan giroa zegoen, bestela ez.

Azarotik abendura bitarte egin zen. Eguraldia lagun izan zenuten?

Gaua zen, negua, eta hotza egiten zuen, baina korri egiteko ona da hori. 02:30a inguruan hartu nuen lekukoa. Oiartzun erdialdea pasata, Astigarragarantz hasi ginenean, ez zegoen inor lekukoa eramateko. Gainera, ez zegoen etxerik bide horretan eta horregatik ez zegoen inor, eta gaua zela gehitu behar zaio horri. Orduan, esaten genuen, 'zer egingo dugu, lekukoa furgonetan sartu eta kito?'; bada guk esan genuen ezetz, guk segituko genuela.

Jarraitu genuen, eta Astigarragan berdina gertatu zen: jendea herri inguruan zegoen soilik. Erdigunean lekukoa txandakatu genuen bertako herritarrekin, baina gero berriz ere hartu genuen guk. Ahal zenero lekukoa guk eramango genuela erabaki genuenez, Andoaineraino iritsi ginen. Bertara iristean goiza zen jada, eta orduan bukatzea erabaki ge-



nuen. Garai horretan toki batzuetan ez zen dena segidan egin.

Zenbat elkartu zineten Oiartzundik bide hori egitera?

Hiru oiartzuar izan ginen. Joxe Mari Castro ezinenarekin ezaguna dena, Iñaki Bergaretxe eta ni neu. Txorotzat hartzen gintuzten garai hartan, eta orain ez da horrela.

Beti korri egin izan duzu.

Bai, eta orain ere jarraitzen dut. Lasterketetan ez dut parte hartzeagatik ordaintzen, dortsalen prezioak garestiak direla iruditzen zait. Baina bestela, korri egiten jarraitzen dut. Aldapak-eta igotzen ditut oso erraz. Afizio handia dut traineruekin, eta gustatuko litzaidake baten batean parte hartzea. Ilusio hori daukat.

Aurten Korrikan parte hartuko duzu, orduan?

Oraingoan ere apuntatuko naiz eta kilometro asko egiteko asmoarekin. Abestia lagun izaten da ere, Xabier Amurizak egindako lehenengoa dut gogoan [abes-

HILAK 9

Tailerrak

11:00. Korrika Jaiaren barruan haurrentzako eskulanak egiteko aukera izango da Arrantzale auzoan. Santa Maria Magdalena tailerra ere eskainiko dute leku berean. Bi ordu iraungo dute biek ala biek, eta ez da izenik eman behar.

Ginkana

17:00. *Gazte konkis ginkana* antolatuta dute, eta Arrantzale auzoan egingo da. Aurretik izena eman beharra zuten taldeek hilaren 5a baino lehen. Saria irabazteko aukera dagoela aurreratu dute antolatzaileek.

Kontzertuak

19:00. Marmoka musika talde hondarribiarrak kontzertua eskainiko du Zumardian.

23:00. Scooby Band hondarribiarrak igoko dira oholtzara azken orduetarako jartzera.

Afaria

21:00. Korrikari itzaroteko afaria egingo da. Alegia, bi kontzertuen artean jateko parada aterako dute Zumardian. Menua paellak, postreak eta kafeak osatuko dute. Txartelak atzora arte zeuden eskuragarri hainbat lekutan; baten bat geratuz gero Blagan Euskara Elkarteari galdetuta lor daitezke.

22. Korrika

01:30. Igandeko 01:30ak aldera sartuko da Korrika herrian.

Korrika Txikia

Asteartean egin zen hiriko hiru ikastetxeek parte hartzen duten Korrika. Ohi moduan, Arma plazatik irten ziren ikasleak, eta San Pedro kalea izan zen helmuga. Talde-burbuiletan jarraitzen dutenez eskoletan, helmugan ez zen ekitaldirik egon.

Egun horretako argazkiak eta albistea osorik irakur daiteke bidaso.hitza.eus orrialdean.



Hondarribian euskaraz bizi





Ezker-eskuin: Unax Errazkin, June Morales, Alaitz Susperregi, Zudaire Telletxea, Naiara Etxebeste, Aroa Fernandez eta Sayuri Varela. A. Amas

Korrika Gaztea antolatu dute ikastetxeek lehenengoz Irunen

Toki Alai, Eguzkitza, San Vicente de Paul eta Hirubideko DBH 3 eta 4. mailetako ikasleak aritu dira goitik behera gaurko eguna prestatzen. 10:00etan irtengo dira Mendelutik Zabaltza plazara arte.

AIZPEA AMAS AGIRRE

Iritsi da eguna. Dagoeneko guztia prest dago, eta urduritasunak albo batera utzi, eta jaiaz disfrutatzen uena iritsi zaie Irungo gazteei. Izan ere, Korrika nagusiaren atarian, gaur, Irunen, Korrika Gaztea egingo dute lehenengoz. Ekitaldi horren atzean Toki Alai, Eguzkitza, San Vicente de Paul eta Hirubideko DBH 3 eta 4ko ikasleak daude; zehazki, Euslder egitasmoan lanean ari diren ikasleak. Lan handia izan dela onartu dute, baina beren buruarekin «pozik» azaldu dira aurrera ateratzeko gai izan direlako. Izan ere, goitik behera, ekitaldiaren antolaketa ikasleen esku egon da.

tipi-tapa tipi-tapa korrika!
KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

AUZIERBITZU ZERBITZUA

ETXERAKO ZERBITZUA

ILEPAINDEGIA KORRIKO HITZOKIA

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Irunen eta Beran

943 63 45 36

HitzEkin Garbi!

aurkituko gaituzu

www.goieko.com

HILAK 8

Euslider hizkuntza lidergoa sustatzeko proiektua da, eta ikastetxeetan euskarari bultzada bat emate aldera, hainbat ekintza antolatzen dituzte. Horren barruan, aurten Korrika antolatzea erabaki dute hiriko zenbat ikastetxeren artean.

«Gainera, kontuan izanda, Korrika nagusia gaueko ordu txikietan pasatzen zela, ez zen oso ordu aproposa guretzat», adierazi du Alaitz Susperregi antolatzaileak. Modu horretara, gazteek parte hartu eta euskara sustatzea da euren asmoa.

Proposamena irakasleen eskutik iritsi zitzaizen ikasturte hasieran, baina hortik aurrera, garapen osoa ikasleen esku egon da, «helduak bakarrik ikuskatzen aritu dira». Ikasleen arabera, azken hilabete hau «korapilatsua» izan da, «gauza asko» koordinatu behar izan baitituzte. Ardurak ikastetxe bakoitzaren artean banatu dituzte, eta Toki Alairen kasuan, ibilbideaz, ikastetxeekin koordinatzeaz eta prentsa idatziarekin harremana egiteaz arduratu dira. Gainontzekoek sare sozialak, irrati eta telebistarekin harremanak, pankartak eta ekitaldi bukaerako festaren antolaketa hartu dute beren gain. Toki Alain 20 bat ikasle aritu dira.

Edozein kasutan, proiektua positiboki baloratu dute, eta gauza asko ikasteko aukera izan dutela gaineratu dute. «Eskolan proiektuak egin izan ditugu, baina lehenengo aldia izan da tamaina honetako egitasmo bat egiten duguna», azaldu du Naiara Etxebeste ikasleak. «Hasieran, ez genuen uste horren proiektu handia izango zenik, baina, gero, ohartu ginen herri mailako gauza zela, eta gustatu zai-gu parte hartzea, eta gauzak guk nahi di-

Gazte Korrika

10:00. Gazte Korrika, Mendeluko biribilguneetik Zabaltza plazara. Amaieran, ekitaldia izango da, Zabaltza plazan.

HILAK 9

Jaialdia

12:00. Trikipoteoa alde zaharrea: AEK euskaltegitik hasi eta Kale Nagusia eta San Juan plaza inguruan dauden tabernetatik ibiliko da.

14:00. Bazkaria EKT elkartean. Sarreak 20 euroan eskura daitezke AEK euskaltegian, baita honako taberna hauetan ere: Kabigorri, Altzola eta Aranaztarra.

18:30. Txokolate jatea Urdanibia enparantzan.

20:00. Bertso musikatuak, Urdanibia plazan. Eskualdeko artistek parte hartuko dute saioan. Zitzaka taldeak antolatuta.

22:00. Selektah Stepi eta lagunak. Korrika iritsi bitartean, Selektah Stepi eta beste zenbait talde gonbidatuk kontzertua eskainiko dute.

HILAK 10

Jaialdia

00:46. Hendaia emango dio lekukoa Iruni Santiago zubian. 01:16an Hondarribirako bidea hartuko du.

02:04. Berririo lekukoa hartuko du Irunek Hondarribiaren eskutik, Mendeluko biribilgunean. 02:56an Oiartzunerako bidea hartuko du.

tugun moduan antolatzea. Prozesu polita izan da», nabarmendu du June Moralesek. Ikasleen artean egon den «lankidetzeta eta laguntasuna» ere gaineratu ditu Susperregik.

IBILBIDEA

Gaur, 10:00etan irtengo dira ikasleak Mendelutik, eta Zabaltza plazara arteko bidea egingo dute korrika. Amaitutokoa, festa izango dute, 13:30ak arte. Lekukoan izango den mezua irakurtzeaz gain, musikarekin girotuko dute jaia. Bidean doazenean, berriz, lekukoa pasatuko dio ikastetxe batek besteari. Korrikan aritzeaz gain, dena koordinatzen aritu beharko dute egunean bertan: batzuk elkarriketak eskaintzen, besteak argazkiak eta bideoak ateratzen... Egun osoan zehar ateratako irudiekin bideo bat osatuko dute.

Deialdia Irungo ikastetxe guztiei zabaldu bazieten ere, Korrika Gaztea antolatzen ari direnek bakarrik parte hartuko dute, DBH 3 eta 4ko ikasleek. ✕



Mikel Del Val

«Oso momentu polit eta hunkigarria izango da»

MIREN USABIAGA

EUSKARA IRAKASLEA ETA KORRIKAKO LEKUKOAREN IRABAZLEA

Usabiaga izan da HITZaren lekukoaren zozketako irabazlea. Ilusio handiarekin jaso du albistea, Korrikaren etorrera modu berezian bizi baitu. Honakoa izango da lekukoa utsiko duen lehen aldia.

MIKEL DEL VAL

HITZaren lekukoaren zozketako irabazlea izan zara, eta zuk eramango duzu Irun eta Oiartzun arteko zatian, Gurutze inguruan. Zer suposatzen du zuzetzat Korrikako lekukoa eramateak?

Aurreneko aldia izango da niretzako lekukoa eramaten, eta egia esan behar badut, izugarrizko ilusioa egiten dit. Niretzako ezusteko sorpresa izan da lekukoa eramateko saria jasotzea. Are eta gehiago gaueko Korrika izanik. Gaueko Korrikak badu bere xarma berezia, egunekoak ere duen bezala, baina gauekoa bereziagoa dela uste dut, eta ilusio handia egiten dit.


Ilusioaz mintzatu zarela, zer esanik ez zuzetzako euskara irakaslea izanik.

Korrika berezia izan da beti niretzako, ikastolan eta familian. Ikastolari dago-kionez, asteak daramagu Korrikaren inguruko gogoeta bat egiten, ez bakarrik zer suposatzen duen, baizik eta horren atzean zer dagoen. Azken batean, Korrika aldarrikapen bat da. Nik bizi izan dut, eta ikasleei ere saiatzeko naiz transmititzen ez dela egun puntual bateko gauza bakarrik, gustatuko litzaidakeela akuilua izatea.

Kopuruek diote gero eta gazte gehiagok dakitela euskara, baina ni konbentziturago gero eta gutxiago entzuten dela. Hori dela eta, Korrika bezalako egitasmoak behar ditugu gure kontzientziak astintzeko.

Zer transmititzen diezu ikasleei Korrikari buruz?

Korrika euskararen transmisioan dago-



HITZ ZAHAR EDO BERRIAK, EKIN!

LEKU ZAHARRA

943 516 441
MADALEN KALEA 3
20100 ERRETERIA-ORERETA
GIPUZKOA

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA
20100 Erreteria
Tel.: 943 510 450
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1
20400 Tolosa
Tel.: 943 672 900



Lanbide heziketa baino askoz gehiago



en beste inizatiba bat bezala kokatzen dut. Gure ikasle askok euskara ikastolan egiten dute bakarrik, eta ziurrenik, askok irakasleekin egiten dute soilik. Beraien aisialdian edo beraien arteko harremanetan euskarak presentzia urriagoa dauka.

Niretzako oso garrantzitsua da euskararen garrantzia azpimarratzea. Azken finean, Korrika euskararen herria batzen duen jarduera ere bada, eta nik euskararen herrian eta tankera honetako egitasmoetan sinesten dut. Hori beti transmititzen diet, baina Korrikak aitzakia ematen dit horri buruz gehiago hitz egiteko.

Zer da zuretzako Korrika? Zer nolako bizi-eraketan etortzen zaizkizu gogora?

Korrika euskaltegian lan egin nuen garaitik ezagutzen dut. Lehen pertsona bizitzen dut, eta saiatu naiz hori ere nire seme-alabei eta ikasleei transmititzen. Kurioso da, baina badago belaunaldi bat Korrikarekin hazi dena, eta haien zatitza ere oso inizatiba berezia da. Oraindik ere, nire seme-alabei edo ilobei Korrikari buruz hitz egiten diedanean, zerbait berezia bezala antzematen dute. Uste dut gure belaunaldiak lortu duela transmititzea. Koska izango da ea oraingo belaunaldiek transmitituko duten Korrikarekiko maitasun hori.

Korrika beste ekinaldi bat bezala bizi izan dut, pixka bat akuilu lana egiten diguna, eta euskarari bultzada eman diena. Badakigu denaren atzean helburu ekonomiko bat ere badela, baina euskaldunontzat bada beste aukera bat gure nortasuna eta izaera eraikitzen laguntzeko.

Honakoa ez da zure lehen eta azken aldia izango lekukoarekin, ezta?

Lehen aldia da honakoa, eta gainera, HITZA-ri esker izango da. HITZA-k aukera eman dit hedabidearen nolabaiteko aurpegia izateko kilometro horretan. Oso momentu polita eta hunkigarria izango da, eta benetan espero dut intentsitate handiz bizitzea. Lasterka egitearena beste asunto bat izango da. Egia da korrika egiten, berandu bada ere, ikasleengatik egiten hasi naizela. Orereta Ikastolak Lilatoian parte hartzeko gonbita egiten du, eta horri esker, lasterka hasi naiz.

Horrez gain, nabarmendu nahiko nuke, familian pendiente daukagula kilometro bat erostea. Euskal Herriko zenbait herritan badaude inork nahi ez dituen kilometroak, pixka bat galduta daudenak, eta etxean kilometro hori erostea pendiente daukagu anai-arreben artean. Horregatik, hau izango da nire lehen aldia lekukoa eramaten, baina ez da azkena izango. ✕

GAUR

Korrika Gaztea eta emanaldia

12:30. Herriko ikastetxeetako ikasleak Linon bilduko dira Korrika Gazteari harrera egiteko, Andoni Oilokiegiren musika emanaldiarekin batera.

Koreografia

18:00. Herri Arte Eskolako kideekin batera, Korrikako *Hitzekin* abestiaren koreografia egingo da Linon.

BIHAR

Korrika Jaia, Zumardiko karpan

19:00. Gamon Zumardiko karpako barra zabalduko dute.

20:15. Irati Jauregi eta Gardokiren emanaldia Zumardiko karpan.

21:30. Afaria.

00:30. DJ Bullek gaua girotuko du. Horren ondoren, Korrikari harrera:

03:52an Arraguako biribilgunean lehen txandan, 05:34an Kaputxinoetako biribilgunean bigarren txandan.



CRISTOBAL GAMON
HITZEKIN
KORRIKAREKIN

Sorgintxulo 6,
 20100 Errenteria-Orereta
 Tel.: 943 89 91 38
 zuzendaritza@crisobalgamonlhi.eus
 www.crisobalgamonlhi.hezkuntza.net



IES Koldo Mitxelena BHI - Errenteria

Hitzekin Euskara ahora

50 urte

Galtzaraborda etorbidea, 43. 20100 - Errenteria.

Tel.: 943 89 95 00 - Faxes: 943 89 94 98

E-maila: idazkaria@koldomitxelena.com

Web orria: www.koldomitxelena.com



Xabier Dorronsoro Zabaleta eta Juli Del Sol Bermejo, Korrikaren kartelarekin. U. Etxebeste

Lekukoa eskuan, euskararen lekukotza ahoan eta bihotzean

Juli Del Solek eta Xabier Dorronsorok Oroitzene AEKren lekukoa eramango dute igande goizaldean. Urduri daude, haientzat esanahi handikoa baita AEKren inizatiba erraldoiaren protagonistetakoak izatea.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Igande goizaldean, 04:15 inguru. Herriko eragile askotako ordezkariak egingo duten moduan, Juli Del Sol Bermejo eta Xabier Dorronsoro Zabaleta zain egongo dira, 22. Korrikaren lekukoaren zain.

Oroitzene AEKren zatia egingo dute haiek. Urduri, zirrarez daude. «Nola biziko dudan une hori? Gauza asko pasako zaizkit burutik. Aurrekoetan ere lekukoa hartu izan dut. Sentimendu asko azaleratzen dira, ohorea da. Euskal Herri osoa zure eskuan duzu», azaldu du Del Solek. «Hunkigarria izango da, bai. Oroitzen gaude, oso gustura gainera. Egunero Hamaika Telebistan ikusten dut, alaba Nafarroan izan dut Korrikan. Barruko zuntz horiek ukitzen ditu Korrikak. Euskaraz bizi nahi dugula adierazteko modu bat da Korrika», aitortu du Dorronsorok.

Biak ala biak adinekoak dira. Euskaltegian daude. Del Sol ez da Euskal Herrian jaioa, baina gazte-gaztetatik atxiki da bertako herri mugimendura, tartean euskaltegira nahiz euskara eskoletara, «ez dut oso ondo hitz egiten euskaraz. Baina beti erabiltzen saiatzen naiz».

Dorronsorok, aldiz, etxean jaso zuen euskara. Erretiroa hartuta alfabetatzeari ekin dio: «Gau Eskoletan Pello Garbizurekin, Patri Urkizurekin, Agustina Lizarazurekin eta beste hainbatekin euskara ikasten aritutakoa naiz, gaztea nintzela. Gazteek badute joera euskara baztertzeko. Haiengandik jaso nuen nik, eta beste askok, euskararekiko sena. Gero AEK sortu zuten herrian. Baina lanagatik ezin izan nuen aritu. Orain, denaren aurretik euskara jarri dut. Horrek betetzen nau».

ERABILERAREKIN KEZKA

Lezo herri euskalduna da. Herritarren gehienak daki euskara. Erabilera, ordea, ez dator bat ezagutza horrekin. Horren



LEZO
INSTITUTUA

HITZEKIN HAZI, HEZI
ETA BIZI EUSKARAZ

LEZO INSTITUTUA

Tel.: 943 89 92 81
lezoinstitutua.hezkuntza.net
institutua@lezoinstitutua.net

Tel.: 943 514 804
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus

Lezo
Herri Eskola



gaineko kezka dute biek. «Gazteek batez ere baztertzen dute euskara. Dituzen erreferente nagusienak atzerriko hizkuntzetakoak dira. Erraz jotzen dute alde horretara. Gu gaude adierazteko euskaraz egin behar dela. Akuiluarekin ibili behar da. Eta pentsatzen dut gora joango dela erabilera pixkanaka-pixkanaka, eta hori Korrikari esker ere izan daiteke», nabarmendu du Dorronsorok. Del Solek aipatu du, gazteen artean ere kontzientzia duen jendea badagoela, gero eta gehiago direla euskara mingai-nean dutenak, «Korrikak horretan laguntzen du».

AEKren iniziatiba erraldoiari buruz hitz egiterakoan behin baino gehiagotan hunkitu da Del Sol. «Korrikak oroitarazten digu nor garen», dio Dorronsorok. Herritarren arteko elkarlanaz, bat egiteaz mintzatu dira biak, bai euskararen gaian bai eta bestelakoetan ere. «Hori ikustea sekulakoa da. Indarra dugu, eta elkartzen garenean edozer egin dezakegu. Horren adibide da Korrika». Lekukoa

GAUR

Korrika Gaztea

12:00. Pasaia-Lezo Lizeoko Donibane-ko eraikin nagusitik abiatuko da Korrika Gaztea. 12:15ean Lezoko ikasleak jasoko ditu termika zenean, herria pasa, eta Erreterria-Orereta aldera joateko.

Korrika Txikia

15:30. Goiko Plazatik abiatuko da Korrika Txikia. Herriari itzulia eman, eta Saldisen askaria izango dute partaideek.

18:00. Eztanda taldeko haurrek Korrikaren koreografia egingo dute plazan. Jone eta Iker trikitilariak ere emanaldia egingo dute. Aldi berean, kuestazioa eta Korrikaren salmenta gunea izango dira.

igande goizaldean eraman arren, badakite euskararen lekukotzak astelehenean, asteartean eta aurrerago etorriko diren egun guztietan bizi-bizi egon behar duela. «Juli da horren adibidea. Dakien

BIHAR

Beroketa

17:00. Lezo Herri Eskolako jolastoki estalian, zumba saioa familientzat.

18:30. Saldise plazan, herri kirol desafioa: Lezoko gazteak, Donibane-ko gazteen kontra. Trikitilariak eta bertsolariak ere izango dira, baita kuestazioa ere. Ondoren triki-poteoa egingo dute.

21:30. Saldisen, herri afaria. Barazkijaleentzat eta orotarikoek jaleentzat menuak daude. Tiketak 15 euroan salgai Oroitzenen. Ondoren, Modestorekin dantzaldia.

03:30 inguruan. Lekukoak eramango dituztenak euren kilometroetara joaten hasiko dira.

bezala hitz egiten du euskaraz. Baina hitz egiten du. Hori da zabaldu behar den mezua. Euskara ikastea ondo dago, baina hitz egin behar da», adierazi du Dorronsorok. ✕

Tknika

Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatuko Zentroa
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi
Basque VET Applied Research Centre



Tknikan eta Lanbide Heziketan euskaraz

Zamalbide auzoa • 943 08 29 00 • Erreterria

www.tknika.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Lanbide Heziketa Sailburuordetza Vocación de Formación Profesional

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



2019an Oiartzun eta Karaezen arteko mende laurdeneko lotura ospatu zuten. I. Saiz

Bretainiarrak Korrikan, Yanni zaldia hurbilarazten

Bretainiako 30 bat lagunek Oiartzun-Karaez senidetze batzordekoen kilometroan korri egingo dute. Ar Redadeg antolatzen dute parte-hartzaileek; Fulup Kerek hurbildu du hango errealitatea.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Bretainiako Ar Redadeg (hango Korrika) antolatzen ibiltzen den taldeko hainbat kidek Oiartzunen korri egingo dute, Oiartzun-Karaez batzordearen kilometroan. Diwanetako ikasle, guraso eta langileren batek ere osatuko dute segizioa.

Fulup Kere izango da etorriko denetakobat. Bretoieraren aldeko lasterketaren aldeko zuzendaritzako kide da. Haien kilometro *ofiziala* Baionan izango da. «Harro egongo gara *Gwenn ha du-a* [Bretainiako bandera] eta Ar Redadegena erakustearekin». Bretainiako errealitatearekin alderatuta, euskararen aldeko borroka «oso garatuta» dagoela azaldu du Kerek. «Seaska eta Korrika guretzako eredu dira. Esperientzia horiek gureganatu ditugu, Bretainiako testuingurura egokitzeko», azaldu du. 2008an hasi ziren Ar Redadeg egiten, 600 kilometroko ibilbidearekin. «Erotzat hartu gintuzten kilometroak 100 edo 200 euroan saldu nahi genituela esan genuenean; askok esaten ziguten bost euroan saldu behar genituela...», gogorarazi du Kerek. Ez zen arazorik izan: 600 kilometroak saldu zituzten. Aurtengo ekitaldirako (maiatzean izango da) kopurua ia lau-koiztu dute: 2.200 kilometro egingo dituzte. «Erosleek bere kilometroan korri egiteko joera hazten ari da, gainera. Pixkanaka jendea ari da ulertzen lekukoa eskuz esku pasatzeak duen garrantzia».

Lehenengo ekitaldi hartan, lortutako diru sarrera guztiak diwan bretoierazko



KIRIKOKETA

hitzeekin,
zure burua
apaindu!

Aialde, 1
Oiartzun
943 26 07 78

Matteo

JATETXEA

Egunero irekita.

Bazkariak 13:00etatik 15:30era.

Taberna 11:00etan irekitzen dugu.

Iurrita bidea, 2 behea. Ugaldetxo.
20180 Oiartzun
Tel.: 943 49 11 94
info@amoralpuchero.com



ON-LINE KARTA

www.amoralpuchero.com



943 49 11 94

667 713 584

GAUR

Korrika Ttikia

15:00. Korrika Ttikia.

16:30. Txokolate jatea, dantzak, bertsoak... plazan.

19:00. Korrika Gaztea.

BIHAR

Korrika Eguna (plazan)

11:00. Dultzainak.

12:00. Mutxikoak.

13:00. Argazki ofiziala, lekukoen eramaileekin.

17:00. Zirku tailerra, haurrentzako.

19:30. Nikole eta Joxe Leonen emanaldia.

21:30. Afari autogestionatua. Bertsoekien hasiko da.

23:30. Dj Txillardegia.

02:30. Beroketa girotua.

03:05. Korrika Gurutzetik sartuko da. Lekukoaren eramaile guztiak ikusteko, ikus oarsoaldea.hitza.eus webgunea.

ikastetxeei bideratu zizkieten. Oraingon, bildutakoaren erdia zuzenduko diete ikastetxeei, eta beste erdia hizkuntza gartzeko proiektuei: «2022an haurrentzako eskulan tailerrak finantzatuko ditugu, mahai-jokoak sortzeko, esketxak egiteko, antzerkigintzarako... Haurrentzako aisialdiari ere bideratuko diogu dirua, baita bretoierazko surf ikastaroei ere, kazetaritza profesionalizatzeaz gain».

URRATSEZ URRATS

Kerek azaldu duenez, Ar Redadegen ekitaldi bakoitza «oso garrantzitsutzat» jotzen dute hizkuntzaren aldeko ekintzaileek zein bretoieraren lagunek. Emsav Britainiako mugimendu abertzaleak parte hartzen du. Salbuespen batekin: «*Fatxek* izan ezik, sistematikoki errefusatzan baititugu».

Gaur egun udal gutxik uko egiten diote kilometro bat erosteari, herritarrek gaizki ikusiko bailukete. «Irudi dinamiko eta alai eramatzen dugu, eta beharra dugu. Izan ere, gehiegitan —halabeha-

rez— egoten gara baliabide faltak salatzan. Ar Redadegek haize freskoa dakar, eta populazioaren ikuspuntua aldatu du». Oraindik lan asko egiteko daukate, egoera zailean baitago bretoiera. Azken ikerketen arabera, 200.000 bat hiztun ditu, eta horien %70 65 urtetik gorakoa da. Diwanek 20.000 ikasle dituzte; eskola populazioaren %3. Hizkuntzaren egoera deskribatzeko esaldi bat erabili du Kerek: «*Pell emañ Yann diouzh e gazg*». Alegia, Yann oraindik bere zaldia-rengandik urrun dago.

Gainera, pandemiak okertu egin du egoera: ikastaro trinkoak dira bretoiera ikasteko modurik onena, baina asko jaitsi da ikastaroen kopurua. Kere ezkor da etorkizunarekin: «Frantziako Estatuaren kate jakobinoak estutzen gaituen artean, bretoia hizkuntza soziala izango den itxaropenik ez dut». Autonomia eskatu du, hizkuntzari buruz erabakitzeko bada ere. Bultzada eman nahi dute maiatzaren 20tik 28ra, Gwitregetik Gwenadera. Yannek zaldia hurbilago izan dezan. ✕


IKASI EUSKARA DOAN B2 maila arte!

Informazioa Oiartzungo Udaleko Hizkuntz-normalizazio sailean:
 Telefonoa: 943 493 842
 E-maila: euskara@oiartzun.eus



O. Gerendiain

«Jipoitzen gintuzten, eta gure defentsa euskara izan zen»

CARLOS GOMEZ

ANTXOKO URDIN LIBURU DENDA

Urdin liburu dendako erakusleihoek beti eman dute hizpiderik antxotarren artean. 22. Korrika irudikatzeko hautaturiko elementuak ez dira ausazkoak izan, asko baitute euskararen aldeko militantziatik.

O LAIA GERENDIAIN

Etetik jaso al zenuen euskararekiko konpromisoa?

Bai, amonarengatik. Hura gurekin bizi zen eta harengatik jaso genuen sentimendu hori. Kontua da euskara debekatu zagoenez, ohitura hartu genuela erdaraz hitz egiteko, eta gaztelania hutsean egin izan dugula beti etxean.

Ikastolak hasi berriak ziren orduan, klandestinoak ziren. Banituen lagunak euskaldunak zirenak, baina gehienak erdaldunak ginen, eta heldu zen une bat, parrandaren batean-edo, ez dakit zehazki nola, ikusi genuela errepresioaren aurka joateko zerbait egin beharra genuela, eta euskara ikasteko erabakia hartu genuen. Euskalduntzeko hautu kontzientea egin eta ikastaro txiki batean sartu ginen kuadrillako batzuk.

Noiz izan zen hori?

Uf! Kortaturen garaian. Hor badago disko bat *El estado de las cosas* (1986) inflexio puntu bat markatu zuena, Kortatuk hasieran gaztelaniaz abesten baitzuen, eta gero, *Aizkolari* eta halako abestiekin hasi zen euskalduntzen. Bada, gu berdin. **Euskalduntzeko konpromisoa zorrotz bete zenuten, ezta?**

Barnetegitik bueltan erabakia hartu genuen hitz bat bera ere ez egiteko gaztelaniaz. Jendeak zioen: 'Hauek zoratu dira! Menditik bueltatu dira burutik jota'. Baina guk hitza hasi eta buka bete nahi genuen. Aurrekoarekin puskatu beharra dago zerbait berria hasteko, eta hala egin genuen, muturrera eraman genuen.

Harrezkero ni beti ibili naiz ikastaroak egiten, irakurtzen... Eta bidean, lagunekin, beti gurea aldarrikatzen, jo eta su. Errepresioa handia zen, alde guztietatik jipoitzen gintuzten, eta gure defentsa euskara izan zen.

Irungo nahiz Pasaiako AEKn ibilia zara.

Kuadrillako gehienak Irungoak nituen, Moskukoak, eta han asko ibiltzen ginez bertan hasi nintzen AEKn. Ni neu irundarra naiz, Antxon bizi arren.

Hori bai: denetarako genuen denbora, e! Tabernetan elkartu eta gure bilera propioak egiten genituen: 'Ea, asteburu honetan zein kontzertutara joan behar dugu?', eta hortxe gindoazen, ostegune-

MA
TZA
IN

PODOLOGIA AURRERATUA

Hitzekin eta OinEkin...
Euskarari Ekin!!!

LIERNI
MURGUIONDO
OLAIZOLA

Kol z. 244

T 943 96 91 69

Santa klara plaza,
1 behea.
ERRETERIA

tik igandera, deskantsurik gabe [barrez]. Nire amak xerra bokata erraldoi batzuk prestatzen zizkidan, bazekielako noiz alde egingo nuen, baina ez, ordea, noiz bueltatuko nintzen.

Denbora igaro da ordutik, baina konpromisoa tinko mantendu duzu dendan ere.

Bai, zentzu horretan beti izan naiz oso militantea. Nahiz eta euskaldun berria izan, ez dut lotsa ez inolako konplexurik, eta lehen hitza euskaraz egiten didanari beti hitz egingo diot euskaraz, hanka sartzeko beldurrik gabe. Erabileran uste dut dagoela gakoa euskara hedatzeko.

Horretarako saiakera da, hain zuzen, Korrika. Zein esanahi du zuretzat?

Zerbait erraldoia da, gure hizkuntza bultzatzeko, gure nazioa berpizteko. Euskararik gabe ez dago ezer, ez dago naziorik, euskaldunok ez gara existitzen; bereizten gaituen euskara ez bagenu espainiarak ginateteke. Gure nortasuna da euskara, eta jendea hona erakartzeko modu bat da Korrika; batzen gaituen zerbait.

Sentimendu hori beti islatu izan duzu liburu dendako erakusleihoan.

Salmentarako garrantzitsua da, noski, baina beti mezu bat uzten saiatzen naiz; kalean dagoen kezka modu simple batean ikusgarri egiteko modu bat ere bada hau.

Zuhurki hautatzen dituzu elementuak.

Eszenatokia Pasaia da, horregatik daude portuko garabiak, kamioiak... baina ezkutuko zenbait mezu baditu, ikusi bi horiek [garabi baten gainean dagoen azal beltzeko panpina bat seinalatu du lehendabizi; eta erakusleihoaren beste aldean dagoen kartel bat gero. Inor ez da ilegala irakur daiteke bertan]. ✕

SAN PEDRO

Gaur

15:30. Korrika Txikia; eta jarraian, merienda eta buruhandiak.

Bihar

17:00. Euskara konkista dezagun.

18:00. Pirata garrapataren abenturak.

19:30. Herri triki-jotze poteoa.

Etzi

04:30. Salda beroa Antxeta elkartearen.

05:01. Korrika, badiatik Ondartxora.

ANTXO

Gaur

15:30. Korrika Txikia, Gure Zumarditik. Gero, merienda, jolasak, Korrikaren tonbola...

Bihar

15:30. The Joselontxo's txaranga.

21:30. Afaría Ibaiondo frontoian.

Etzi

05:10. Korrika, Buenavistako biribilgurenetik abiatuta.

DONIBANE

Bihar

10:00. Jaizkibel mendiaren ondarea ezagutuz ibilaldia, plazatik.

12:00. Pintxo lehiaketa plazan eta bitartean, mutxikoak.

17:00. Haur jolasak Meipin.

18:00. Korrikako koreografia Meipin.

18:30. Kantu jira Meipin.

21:30. Afaría Bixi-Bixi Elkartearen. Gero, June Galardiren kantaldia.

Etzi

01:00. Andoni Oilokiegi, kontzertuan.

04:32. Korrika, termika zaharretik.

TRINTXERPE

Bihar

22:00. Bertso afaría. Ate irekiera ordu erdi lehenago. Andoni Egaña eta Alaia Martinen saioa, Trintxer elkartearen.

02:00. Trintxer quizz-a eta musika.

04:30. Gudarien Enparantzan elkartu.

04:50. Korrika iritsiko da.

Hitzekin, euskararen alde!!

ALDAKETA Psikogunea

PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA

HAURRAK-NERABEAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Olatz Elizondo Cuñado - PSIKOPEDAGOGOA -

Maite Elizondo Cuñado - PSIKOLOGOA -

Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN - 943 631 572 / 664 422 440

IPI Karmengo Ama

AURTEN BAI KORRIKAREKIN ALAI!

HITZEKIN
Amurriotik Donostia

Ulía Etorbidea z/g
20110 Trintxerpe - Pasaia
Tlf: 943 899 248 - 688 629 924
zuzendaritza@ipikarmengoama.eus
www.ipikarmengoama.eus



Varilux®
PROGRESIBOEN
2. PAREA
OPARI

DONOSTIA

Jose M^a Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49

ERRETERIA

Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11

IRUN

Mendibil M.G. • Tel.: 943 63 99 01

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen